

IKO
K
H
A
N



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUNERAKO, ERRESPETU- RAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA

Lehen Hezkuntza



www.emakunde.euskadi.net

ZER DA NAHIKO! PROGRAMA?

90 ikastetxe eta 4.000 ikaslelik gora erabilitako eta ebaluatutako hezkidetzako programa. Informazio gehiago: www.emakunde.euskadi.net

HELBURUAK

Ikasle neska eta ikasle mutilen arteko bizikidetzara eta harreman giroa hobetzea, berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako hezitzea eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea.

Horretarako, programak osagarri hauek dituzten bizikidetzako eredu berriak garatzeko materiala eskeintzen du:

- Neska eta mutil bakoitzaren garapen eta autonomia osoa.
- Erantzukidetasuna bizitzaren arlo guztietan.
- Pertsonen arteko biolentziarik gabeko harremanak eraikitzea.
- Errealitatearen eta harremanen genero ikuspegiko azterketa eta hausnarketa.
- Biolentziarik gabeko maskulinitasun berriak.

METODOLOGIA

- Ikasleen adina eta eboluzioari egokituia.
- Ikasleekiko eta bere errealitatearekiko gertukoia.
- Pertsonen arteko harremanen eta gizarterako trebetasunen nagusitasuna.
- Familien hausnarketa eta inplikazioa posible egiten du.

- Formato ludikoa eta eraginkorra du.
- Formato irekia du: tutoretzan lantzeko eta curriculumeko arloetan eta beste programetan txertatzeko aukera ematen du.



OREBE HEZKUNTZA SL-k sortutako materiala.

ZERGATIK ERABILI NAHIKO! PROGRAMA?

2003tik hona lortutako emaitzek bere erabilgarritasuna bermatzen dute.

Programan parte hartu duten ikasleei egindako kanpoko ebaluaketak emaitza hauek eman ditu:

Ondoko gaiei buruz ezagutza, hausnarketa, ñabardura, aberastasun eta aniztasun handiagoa dute:

- Generoko rolak eta estereotipoak eta hauen ondorioak neska eta mutilentzat.
- Ezberdintasunak eta ezberdinkeriak. Berdintasuna eta aniztasuna positiboki erlazionatzen dituzte.
- Berdintasuna, eskubideak, erantzukizuna eta pertsonak, eta hauen arteko harremanak eta ezaugarri sozial eta kulturak.

Berdintasuna eskubide eta betebeharren iturritzat jotzen dute, euren bizimoduarekin eta tratu onekin, errespetoa eta biolentzia- ezarekin lotzen dute.

- Berdintasuna eta Giza Eskubideak gehiago aldarrikatzen dituzte.
- Erantzukidetasuna eta etxeko lanen banaketa funtsezkotzat jotzen dute.

Norbere pertzepzioan eta autoestimuan emaitzek gora egin dute:


- Agresibitatearen emaitzek nabarmen behera egin dute, bai hitzezko agresibitatea bai fisikoa.
- Enpatia mailak nabarmen gora egin du, bereziki mutilengan.



NOLAKOA DA NAHIKO! PROGRAMA?

Programa hiru hileko unitate didaktikoetan antolatuta dago.

UNITATE DIDAKTIKO BAKOITZA



Irakaslearen gidak azaltzen du:

- Unitatearen gai nagusia.
- Unitatearen helburuak eta edukiak.
- Materialen deskribapena, helburuak, ekintzak eta jolas arauak.

Jolasak:

- Gelan talde-lanerako materialak eta dinamikak. Behaketa, azterketa, elkar-rrizketa, eztabaida... ahalbideratzen dituzte.
- Dinamika errazak erabiltzen dituzte, gehienetan ezagunak: familia kartak, dominoa, bingoa, oka, partxisa, egia ala gezurra...
- Helburua: jolasaren bidez ikasleen eguneroko bizimodua ikasgai bilakatu, egoerak, sentipenak, harremanak... biziarazi, gogoratu, aztertu eta hausnartu.



Koadernoak:

- Ikaslearen koadernoak: taldeka jolastu eta landu ondoren eskolan lantzeko da. Ikasitakoa laburtu, barneratu, finkatu eta ondorioak ateratzeko aukera ematen du.
- Familiaren koadernoak: bere helburua eskolan landutakoa familien artean zabaltzea da. Etxera eraman eta bertan lantzeko. Sentsibilizatu, hausnartu, partekatatu eta elkarrizketa egiteko aukera ematen du.

NOLA LORTU NAHIKO! PROGRAMA?

Material guztiak, euskaraz eta gazteleraz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusian eskura daude.



HIRU ZIKLO INDEPENDIENTE

Ziklo bakoitzeko materialek programa osoa eta independentea osatzen dute.

Hala ere, hiru zikloek lotura dute eta **ibilibide bakarra garatzen dute.**



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



LEHEN ZIKLOA: 1. - 2. MAILA

BIGARREN ZIKLOA: 3. - 4. MAILA

HIRUGARREN ZIKLOA: 5. - 6. MAILA

Ni eta nik ahal dudana (zu eta zuk ahal duzuna).

Nesken eta mutilen garapen integral osoa ahalmen eta esparru guztietan sexua kontuan izan gabe:

- 1.UD. Gorputza.
- 2.UD. Sentimenduak.
- 3.UD. Autonomia.
- 4.UD. Mugak.
- 5.UD. Borondatea.
- 6.UD. Beste pertsonak.

Ni eta mundua, mundua eta ni.

Bizitzarako, norbere autonomiarako eta harremanetarako zainketaren eta enpleguren balio eta nagusitasuna:

- 1.UD. Zainketa.
- 2.UD. Aniztasuna.
- 3.UD. Berdintasuna.
- 4.UD. Lanbideak.
- 5.UD. Komunikabideak.
- 6.UD. Berdintasunez elkarbizi.

Ni eta nire familia, nire familia eta ni.

Norbere bizitza proiektuan, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako bikote eta familia harremanak:

- 1.UD. Nor naiz ni?
- 2.UD. Bizitza proiektua.
- 3.UD. Hitzarmena.
- 4.UD. Besteekin bizi naiz.
- 5.UD. Giza eskubideak.
- 6.UD. Berdintasunez bizi familian.

NAHIKO! 1-2 - LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA

1. Maila

- 1.UD Ipuina: "Luze eta Txiki".
Jolasa: "Gorputzaren altxorra".
- 2.UD Ipuina: "Bero eta Hotz".
Jolasa: "Sentimenduen altxorra".
- 3.UD Ipuina: "Indar eta Atsegin".
Jolasa: "Kamara eta...ekin!".

2. Maila

- 4.UD Ipuina: "Trebe eta Tximista".
Jolasa: "Bizitza biderkatzeko taula".
- 5.UD Ipuina: "Sorgin eta Buru".
Jolasa: "Zerrenda".
- 6.UD Ipuina: "Gau bat albergean".
Jolasa: "Gakoa".

Ipuinen istorioak **Berdinland** izeneko herrialdean gertatzen dira, gizon eta emakumeen berdintasunaren ikuspegitik eredu positiboak (semaforo berdeak) aurkituko ditugun herrialdean. Maiz, gure inguruko **ohizko egoera estereotipatuen alternatiba diren egoerak eta ereduak** dira. Beren protagonistak **ikasleen adineko** ikaskide talde baten **neskak eta mutilak** dira. Ipuin bakoitzak gai nagusia laburtzen duen **kanta txiki bat** txertatuta dauka. Ipuina CD batean ematen da hainbat formatetan: audioa, irudiak, irudiak audioarekin, testu laburra...



Jolasek (familia-kartak, puzzleak, memory, denbora sekuentziak...), neskek eta mutilek gorputz, sentipen, autonomiari... dagokionez, berdina ikasten, erabiltzen eta garatzen duten ala ez aztertzeko baliagarri diren **bizi-egoerak** proposatzen dituzte. Batzuek eta besteek beren heziketan **semaforo berde eta gorri** berdinak aurkitzen dituzten ala ez jakiteko balio dute eta, baita ere, semaforo gorriak itzali eta semaforo berdeak unibertsalak bilakatzeko.

NAHIKO! 3-4 - LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA

3. Maila

- 1.UD** Jolasa: "Zainketa".
Jolasa: "Piramidea".
Jolasa: "Sena ala heziketa?".
- 2.UD** Jolasa: "Ipuinen loteria".
Jolasa: "Nesken oka".
Jolasa: "Mutilen oka".
- 3.UD** Jolasa: "Berdintasunaren oka".

4. Maila

- 4.UD** Jolasa: "Hitz debekatuak".
Jolasa: "Laukoteak".
- 5.UD** Jolasa: "Pertsonaiak".
Jolasa: "Komunikabideen partxisa".
- 6.UD** Jolasa: "Berdintasunez bizitzeko oka".



Ziklo honen materialek ikasleek ezagutu eta esploratu nahi duten mundutik eta gizartetik jasotzen dituzten **errealitatearen interpretazio eta modeloak** berdintasun ikuspuntutik aztertzen dituzte. Horretarako kontakizunetan (haur ipuinak, irudiak, pelikula, etab.) eta albisteetan (prentsa, telebista, internet, etab.) inplizitoki zabaltzen diren eredu maskulino eta femeninoak ohartarazten dituzte. Eredu hauek giza aktibitatearen bi oinarriekin lotuta daude: gure gizartean emakumeek eta gizonak egiten dituzten **zainketarekin** (lan erreproduktiboa) eta **enpleguarekin** (lan produktiboa).

Jolasek neskek eta mutilek jasotzen dituzten bizimodu ereduak **bi bizi-ibilbide oso ezberdinak** osatzen dituztela ezagutu eta ulertzeko aukera ematen dute (nesken oka arrosa eta mutilen oka urdina). Ibilbide horietan ikasketak, heziketa, baliabideak, trebekuntza... oso desberdinak daude, neskek eta mutilak rol eta estatu oso ezberdinetan kokatuz. Gainera, berdintasunaren eta Giza Eskubideen alternatiba aurkezten dute (berdintasunaren oka berdea), **bizi-ibilbide komuna**, pertsona bakoitza guztiz garatzea eta autonomoki bizitzea ahalbideratzen duena.



NAHIKO! 5-6 - LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

5. Maila

- 1.UD** Jolasa: "Nor da nor?".
Jolasa: "Hitzez hitz".
Jolasa: "Etiketaren jolasa".
- 2.UD** Jolasa: "Bizitzaren loteria".
Jolasa: "Bizitzaren jolasa".
- 3.UD** Jolasa: "Bizitzaren lau zutabeak".
Abestiak: "Beti aurrera".

6. Maila

- 4.UD** Jolasa: "Nork bere bidea".
Jolasa: "Maite al nauzu?".
Zinema: "Pertsonai bikainak".
Abestiak: "Kanta oso biziak".
- 5.UD** Jolasa: "Etxeko katea: pertsonak".
Jolasa: "EMA.S.O.S. telefonoa".
- 6.UD** Jolasa: "Etxeko katea 2: hitzak".
Jolasa: "Bihotz Minez aholkularitza".



Ziklo honetako jolasek eta materialek **norbere bizitza osoa eta autonomoaren proiektua** bizitzaren arlo guztietan (pertsonala, familiarra, soziala eta laborala) erakitzea proposatzen diete ikasleei. Horretarako, gure gizartean emakumeak eta gizonak mugatzen, estereotipatzen eta klonatzen dituzten etiketa sozialez ohartarazten dute eta ikasle bakoitza, neska zein mutil, bere izaera, ezaugarriak, desioak, proiektuak eta abar ezagutu, onartu eta estimatzera gonbidatzen dute, eta baita norberak (eta emakume eta gizon orok) nahi duen moduan izateko, aldatzeko eta bizitzeko eskubidea ere.

Jolasek, **harreman sentimentalen, familiarren eta maitasunekoaren hainbat eredu** jaso eta aztertzeko aukera eskaintzen dute. Hauekin, neskek eta mutilek maitasun erromantikoaren mitoak eta **tratu onetan, berdintasunean eta Giza Eskubideetan oinarritutako maitasunaren alternatibak** ezagutu eta ulertu ditzakete.

